

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ETA SOZIJETATE PUBLIKOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2014.

Joan den abenduaren 22an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sozietate publikoen ekonomia-finantzazko kudeaketaren fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldiari dagokiona.

Fiskalizatzeko hautatu diren erakundeak **VIRESA** eta **EEE** izan dira. Txostenak **aldeko iritzia** eman du bi erakundeen **urteko kontuen** gainean eta 2014ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko-finantzarioa arautu duen legezko araudia zuzentasunez bete duela ondorioztatu du, ondotik adierazitako salbuespenekin.

Epaitegiak ikusi du **EEEk** 4 langile kontratatu zituela, Estatuko Aurrekontuen Legeak ezarritako mugak gaindituz. Gainera, langile horietako 2ren kontratazioa berariaz gaitutako enpresa batek egin duenez gero, Epaitegiak ez du prozesuaren gaineko dokumentaziorik eskura izan.

Berebat, **VIRESAk** 2 langile kontratatu zituen Estatuko Aurrekontuen Legeak ezarritako mugak gorde gabe. 2 lizitaziotan klausula bat baliatu zuen kontratazioan kontzentrazio arriskuak saihesteko eta horren ondorioz, esleipena ez zen ekonomikoki onuragarrien zen eskaintzaren aldekoa izan. Gainera, Hondarribiko Udalarekin egindako truke baten espedientearen ez da jaso dagokion txosten ekonomikoa.